

LEHEN HEZKUNTZAKO 1. MAILAKO IRAKURTZEKO TREBETASUNEN ERREGISTROA

Ikaslea: Data:

	Barneratuta	Barneratzen	Oharrak
INFORMAZIOA BILTZEA			
Pertsonaiak, ekintzak, lekuak eta abar identifikatzen ditu.			
Testuko objektuak, lekuak eta pertsonaien ezaugarriak identifikatzen ditu, deskribapenen eta irudien laguntzarekin.			
Testuan aurkeztutako ekintzen segida antzematen du.			
Testuko datu zehatzak berreskuratzen ditu gai jakin bat garatu ahal izateko.			
Kontzeptuen edo ideien definizioak identifikatzen ditu: ezaugarriak, erabilerak eta beste objektu ezagunekin, gertaerekin edo ideiekin dituzten loturak.			
Badaki zer testutara jo datu zehatzak bildu edo informazio gehigarria lortu nahi badu, falta zaizkion ezagutzak barneratzeko edo sakontzeko.			
ULERMEN OROKORRA			
Ipuin, abentura edo kondairako kontakizunean zer gertatuko den imajinatzen edo aurreikusten du.			
Irudiez baliatzen da testuaren ideia orokorra zein den jakiteko edo iragartzeko.			
Testuaren edukia marrazki bidez identifikatzen edo irudikatzen du.			
Azaldutako gertaeren kausak eta ondorioak identifikatzen edo ondorioztatzen ditu.			
Testuaren edukari buruzko eskema laburrak egiten ditu.			
Laburpenak egiten ditu ondorioak ateratzeko.			
INTERPRETAZIOA			
Bere zuzeneko esperientziako gertaerak testuetako edukiarekin lotzen ditu.			
Testuko pertsonaiak eta egoerak errealitateko edo beste testu bateko antzeko pertsonaia eta egoerekin alderatzen ditu.			
Testuan azaldutako gertaeren inguruan pertsonaiek zer sentimendu dituzten identifikatzen du.			
Pertsonaien arrazoiak eta motibazioak identifikatzen ditu.			
Irudi bat aztertuta, zer gertatzen den azaltzen du.			
Hipotesiak egiten ditu irakurketan oinarrituta.			
Kontakizunaren amaiera iragartzen du.			
Bere ideiak marrazki bidez irudikatzen ditu.			
Hitz baten esanahi bat baino gehiago ulertzen ditu (testuingurutik ondorioztatuta).			
EDUKIARI BURUZKO HAUSNARKETA			
Testuak sortzen ditu beste testu batzuk oinarri hartuta.			
Kontraesanak atzematen ditu testu batean edo testu-multzo batean.			
Testuaren mezu implizituz abiatuta, ideia sinpleak ateratzen ditu.			
Benetako eta alegiazko gertaerak bereizten ditu kontakizun historiko eta mitologikoetan, komikietan...			
Pertsonaien ekintzak epaitzen ditu.			
Bere esperientzia oinarritzat hartuta, testuari buruzko iritzia ematen du.			
Testutik ateratako informazioa alde aurreko ezagutzekin lotzen du.			
Egilearen edo testuaren helburua identifikatzen du.			
Azalpen-testuetan, jada barneratutako ezagutzak eta ezagutza berriak bereizten ditu.			
Generoa, testuingurua, egilearen helburua eta hartzaileak kontuan izanda, testuaren egokitasuna epaitzen du (hiztegia, gramatika, egitura, informazioaren kantitatea eta argitasuna...).			
Bere ikuspuntuaren aldeko argudioak ematen ditu.			
FORMARI BURUZKO HAUSNARKETA			
Testuaren egitura identifikatzen du.			
Espresio-baliabideak identifikatzen eta interpretatzen ditu.			
Badaki zein den lokailuen edo juntagailuen eta adberbiozko lokuzioen funtzioa.			
Generoak eta azpigeneroak identifikatzen ditu.			
Testu-motak bereizten ditu eta bakoitza dagokion helburuarekin lotzen du: bertsoa/musikaltasuna, oharrak/egilearen argibideak...			